



**EBAZPENA, 2021ko otsailaren 4koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Honen bidez, hurrengo arautzen da 2021/2022 ikasturterako: hautetsia izateagatik zerbitzu-eginkizunak baimentzea.**

Deialdi honen helburua salbuespenezko egoera bati konponbidea ematea da, hala nola, hautetsia izateagatik kargua betetzeagatik zerbitzu-eginkizunei.

Horregatik, Hezkuntza Sailak zerbitzu-eginkizunetarako ezohiko deialdia egiten du, egoera horien kasuak eta helburuak definituzeko.

Deialdi hau gauzatzearen ondorioz egon litezkeen administrazio-egoerei dagokionez, zerbitzu-eginkizunak aipatu behar dira. Zerbitzu-eginkizunak lanpostuak betetzeko ezohiko modu gisa konfiguratuta daude *Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54. artikuluan*, eta *Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 12. artikuluan*.

Horren arabera, eta *Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuak 10. artikuluan* ezarritakoa aintzat hartuta,

**EBATZI DUT:**

**LEHENENGOA.- PARTE HARTZEKO MODALITATEAK**

Hautetsia izateagatik zerbitzu-eginkizunen prozedura deitzea.

**BIGARRENA.- PARTE-HARTZAILEAK**

Honako hauek har dezakete parte deialdi honetan:

- 1.- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioek.
- 2.- Praktikaldian dauden funtzionarioek lehen artikulua ezarritako modalitateetan parte hartu ahal izango dute, betiere 2021/2022 ikasturtean karrerako funtzionarioak badira.
- 3.- Ikasturte osoko lanpostua betetzen duten bitarteko funtzionarioek parte hartu ahal izango dute, betiere 2021/2022 ikasturtean ikasturte osoko lanpostua lortzen badute.
- 4.- Salbuespenez, lan-legepeko irakasle finkeok edo erlijio kategoriako lan-kontratu mugagabedunek deialdi honek irekitzen duen epean bere eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte.

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu beste Administrazio Publikoen mendeko funtzionarioek, bere eremu subjektibotik kanpo geratzen baitira.



## **HIRUGARRENA.- BALDINTZAK**

1.- Zerbitzu aktiboko egoeran egotea, *Euskal herri-administrazioetako funtzionarioen administrazio-egoerei buruzko araudia onartzen duen azaroaren 11ko 339/2001 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera*; edo lanpostua gordetzea dakarren egoera administratiboren batean egotea, eginkizun-gabetzea izan ezik.

2.- Behin betiko edo behin-behineko destinoa Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatetik kanpoko ikastetxe publikoetan izatea, bigarren artikulua 3. puntuan parte-hartzaileei buruz ezarritakoari utzi gabe.

3.- Deialdi honen bidez zerbitzu-eginkizunen bat lortzen duten langileek 2021/2022 ikasturterako veste deialdietan parte hartu ahal izango dute. Deialdi batean baino gehiagotan parte hartzen badu, horietako bat aukeratu beharko du 2021ko maiatzaren 31 baino lehen; hala egiten ez badu, deialdi hori nagusituko da, salbu eta osasun-arrazoiengatik deialdian parte hartzen badu; kasu horretan, azken hori gailenduko da.

4.- Bitarteko funtzionarioek parte hartu ahal izango dute, betiere 2021/2022 ikasturtean ikasturte osoko lanpostua lortzen badute

## **LAUGARRENA.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Salbuespenezko baimentze modalitate honen barnean, zerbitzu-eginkizunetan jarduteko baimena eman ahal izango zaie toki-korporazioetan kargu hautetsietan jarduten dutenei, karguaren tokia eta beraien lanpostua ahalik eta hurbilen egon daitezten, betiere *abenduaren 26ko 53/1984 Legeak*, Administrazio Publikoaren zerbitzuko pertsonalaren bateragarritasunen erregimenari buruzkoak, xedatutakoa betetzen bada.

## **BOSGARRENA.- ESKAERA**

1.- Eskabideak IRAKASLEGUENA atariaren bidez aurkeztu beharko dira (<https://irakaslegunea.euskadi.eus>), "Osasun-arrazoiengatik zerbitzu-eginkizunak" bannerretik, eta beharrezkoa izango da alde aurretik eskatzailearen identifikazioa (NAN/AIZ + pasahitza, edo XLNets erabiltzailea, halakorik balego).

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Hautetsia izanaren karguaren ziurtagiria
- Bateragarritasuna baimentzen duen ebazpenaren kopia. Halakorik ezean, bateragarritasun-eskaeraren kopia.

2.- Eskabideak aurkezteko epea 2021ko otsailaren 22ra arte izango da, egun hori barne. Epea deialdi hau Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Salbuespen gisa, ezarritako epetik kanpo erantzungo zaie bat-bateko egoerek eragindako epez kanpoko eskaerei, baldin eta gertaera eragilea aurreko paragrafoan ezarritako epea amaitu ondoren gertatu bada. Hori justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3.- Deialdi honetan onartutako zerbitzu-eginkizunari uko egin ahal izango zaio, 2021ko maiatzaren 31ra arte soilik (egun hori barne).

Emandako zerbitzu eginkizunari uko egitea organo eskudunak onartu beharko du.



### **SEIGARRENA.- EBAZPENA**

1.-Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdia ebatziko du deialdi honetan ezarritakoa oinarri hartuta.

2.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena, Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da, jakinarazpenetarako.

3.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren kontra, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera.

### **ZAZPIGARRENA.- ONDORIOAK**

Deialdi honen babespean baimendutako zerbitzu-eginkizunak 2021/2022 ikasturtean zehar egongo dira indarrean, eta interesdunak ezin izango die epealdi horretan uko egin.

Lekualdatze-lehiaketaren emaitzaren ondorioz deialdi honen bidez lortu nahi ziren helburuak behin betikoz lortzen diren kasuetan, lekualdatze-lehiaketaren bidez lortutako lanpostuan hasiko da interesduna.

Zerbitzu-eginkizuna onartzen zaion pertsona zerbitzu aktiboa ez den bestelako egoeran balego, zerbitzu-eginkizunerako esleipena zerbitzura itzultzearen mende egongo da; pertsonak berehala zerbitzura itzuli beharko du, eta aldi berean emango zaio zerbitzu-eginkizuna.

Behin betiko jabeek beren jatorrizko lanpostuari eutsiko diote kasu guztietan, eta beste lanpostu batean hasten direnean, zerbitzu-eginkizunen egoeran egongo dira.

### **ZORTZIGARRENA.- BITARTEKO LANGILEAK**

Deialdi honetan ezarritako eskubidea aitortu zaien, eta ikasturte osoko bitarteko izendapena duten langileek parte hartu beharko dute abuztuan egingo den ordezkapen-zerrendako kideak esleitzeko prozesuan.

Esleipen-prozesu horretan parte hartzearen ondorioz, esleitutako lanpostua eta hautetsiaren kargua betetzeko tokia hurbiltzeko helburuarekin bat ez datorren ikasturte osoko lanpostu bat lortzen badu, dauden lanpostu hutsak eskainiko zaizkio iraileko esleipena egin aurretik.

Egindako plaza-eskaintza ez badator bat eskubide hori aitortu zaion pertsonaren helburuarekin, plaza hutsak sortu ahala eskaintzen jarraituko da.

### **BEDERATZIGARRENA.- DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OINARRIZKOA**

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Langileak kudeatzea.

Arduraduna: Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Irakasle eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da, interesduna alderdi duen kontratu bat betearazteko.



- Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

- Estatuko Administrazioiko beste organo batzuk.
- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: [www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048100-capa2-eu.shtml](http://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048100-capa2-eu.shtml)

Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra ([www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa\\_dpd/eu\\_def/adjuntos/RGPD-2016\\_0679\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa ([www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](http://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)).

#### **HAMARGARRENA.- ORDEZKO ARAUDI APLIKAGARRIA**

Ebazpen honek prozedurari eta kide anitzeko organoen funtzionamenduari dagokionez arautu ez duen orotan, aplikagarri izango dira *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea* eta *Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea* eta *190/2004 DEKRETUA, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena.*

#### **HAMAIKAGARRENA.- ERREKURTSOAK**

*Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak*, 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021ko otsailaren 4an.

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO  
DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL